


info  UNIBERTSITATEA

EHUK Campus birtuala eskaintzen du.

EHUra etxetik irten gabe

joan gaitzke jada, Campus Birtualaren bidez

Jabi Zabala • Bilbo

Interneteko aplikazioetarik bat irakaskuntza telematikoa da. Eskolak jasotzeko Unibertsitateko ikastegirainoko bidea egitea nekeza da urrun bizi direnentzako, eta denbora asko ematen dugu garraioetan, batera eta bestera. Sarriegi, irakaslea etorri ez delako edo bere bulegoan aurkitu ez dugulako bidaia debaldekoa izaten da. Diru, pazientzia eta denbora galtze hori ez omen da gertatzen, ordea, unibertsitate birtualean. Irakaslea beti bere bulego birtualean aurkituko dugu, eta egun batetik bestera erantzungo die gure mezuei. EHUn jada hainbat ikasgai jaso daitezke modu horretara, Campus birtuala izeneko esperientzian. Iaz hasi eta aurten emendatu da esperientzia hori.

Irakaskuntza ez presentzia-

la deritzo mota honi eta, ikaslea han ez egotea gorabehera, beste guztia antzekoa da. Internetarako konexioa duen edozein ikasle bizi ez dezake ikastegi birtuala, modu honetan eskaintzen diren ikasgaietako batean matrikulatuta baldin bada. Erabiltzaile izena eta pasahitza sartuta, menu bat ageriko da, eta bertatik ikasgelara sar daiteke ikaslea, ikasgai bakoitzaren gaiak, irakaskuntza planak, lanak, azterketak, emaitzak... Berari zuzendutako mezuek irakur ditzake, baita edozein irakasleri galderak edo kontsultak egin. Kanpus

honetako taberna birtualean, berriz, denbora errealean chat edo berriketa egin dezake irakasle eta ikaskideekin.

Katalunian irakaskuntza mota honetan UOC Universitat Oberta de Catalunya izan da aitzindaria, eta harekin lankidetzan garatu zuten iragan kurtsoan erabilitako eredua. Aurten, aldiz, sistema propioa garatu du EHUK, Manuel Benito Campus honen alderdi teknikoaz arduratzen den irakasleak azaldu digunez: «EHUren beharretara egokitu dugu kanpua, behar ez ziren gauzak kenduta. Iazkoaren antzekoa izango da egitura, baina erabiltzeko errazagoa eta zerbitzu gehiago dituela».

**Datorren ikasturtean karreraren bateko ikasturte oso bat eskaintzeko prest egon nahi dute**

info  EuskaraZ [www. www. www. www. www. www.](http://www.ueu.org/euskaraz.htm)

## Ziberapunteak eta irainak EuskaraZ zerrendan

Jabi Zabala/Bilbo • El Rincon del Vagoren gaineko informazioak (duela bi aste argitaratu genuen hori) eragina izan du EuskaraZ postaz zerrendan —internauta euskaldunak biltzen ditu horrek—. Hainbat mezu agertu dira euskaldunontzat antzeko zerbitzua sortzea proposatuz, materialak ikasle internauten eskuetan jartzeko. Angel Bidaurrezaga irakasleak, aurtengo UEUn plazaratutako gaia izan zela aipatu ondoren, proposamena plazaratu du: «Agian euskararen inguruan gabiltzan unibertsitariok, ikasle zein irakasleok, prestatu beharko genituzke testuak falta diren ikasgaietan dauden apunteak edo itzulpenak modu egoki eta zuzen batean aipatutako Web bat sortzen». Adibide moduan medikuntza histologiako apunteak eskaintzen dituen webgune bat aipatu du. Beste irakasle baten aldeko iritzia jaso du ekimenak, osasunaren psikologiaren gaineko webgune baten berri emanez. Beste ikasle bik, aldiz, kontrako iritzia plazaratu

dute, euskarazko apunteak jasotzeko ikasleei kalte egingo liekeela argudiatuz. Polemika piztuta dago, baina jada plazaratu dira ekarpen praktikoak ere.

Bestalde, ezusteko galanta izan da zerrenda horretako hainbat kiderentzat irainez betetako mezuek jasotzea. Antza, zerrenda harpidetza kendu nahi zuen William Knox izeneko estatubatuarrek, baina ez zekien nola egin eta irainak bidaltzea otu zitzaion zerrendako arduradunek zerrendatik egotziko zutelakoan. Hala egin zuten, baina askoz errazagoa zen, harpidetza kentzeko azalpenak ingelesez baitatzen eGroups webgunean.

**Histologiako apunteak**

<http://158.227.9.135/Histologia/Histo>

**Osasunaren psikologia**

<http://www.sc.ehu.es/scrwwwpt/osasuna.htm>

**EuskaraZ zerrenda**

<http://www.ueu.org/euskaraz.htm>

# Kampus telematikoa

Ibermática enpresaren laguntza izan dute EHUKo Hezkuntza Zientzien Institutuan sistema propioa garatzeko. Iaz, fisikoki, Campus Birtuala UOCen zegoen, eta aurten, berriz, Leioan bertan dago.

Iragan kurtsoaren balantze positiboa egiten du Benitok: «Gainditu dutenen indizea irakaskuntza presentzialaren antzekoa da». Lehenengoan 160 inguru ikasle izan ziren eta oraingoan 720 ikasle izango dira EHUK eskainiko dituen 13 ikasgaietan. Kopuru horri zazpien taldea delakoan dauden unibertsitateek eskaintzen dituzten lau ikasgai gehitu behar zaizkio, Errioxa, Uvieu eta Balearretako unibertsitateek ikasgai bana eskainiko baitute EHUKekin batera. Canterbury eta Renoko unibertsitateekin ere ikasgai banatan adostea espero du Benitok. Datorren ikasturtean karreraren bateko ikasturte oso bat eskaintzeko prest egotea nahi lukete, baina ez dago erabateko ziurtasunik. Bitarteko teknologikoen eta oraingo esperientziaren araberakoa izango da ezarpena, baina, nolahi ere, hazteko joera izango du, dudarik gabe, EHUn ikasketa telematikoa egiteak. Plan berrietako hainbat ikasle eman dezakete izena Campus Birtualean. Informazio gehiago, EHUKo Idazkaritzetan edo 94-6012255 telefonoan.

**Campus Birtuala**

[www.cv.ehu.es](http://www.cv.ehu.es)

[www. www. www. www. www.](http://www.ueu.org)



**WEBGUNEAK**

### Doan sartzeko

Sarean doan sartzeko ez da, jada, zerbitzaria ordaindu behar. Telefono enpresa berriek Internetarako doako zerbitzua eskaintzen hasi zitzaizkien berri euren bezereei, baina bezere ez direnek ere badute dagoeneko aukera zerbitzu horiek hogorlekori ordaindu gabe erabiltzeko.

Seguruenik, gehiago egongo dira, baina guk alta eman eta probatu ditugun bi zerbitzuren berri emango dizuegu: Canal 21 eta Jazztel enpresek eskaintzen dituztenak. Webgune hauetara jo, lagunen baten ordenagailua erabiliz, eta laster izango duzue etxetik konektatzeko sarbidea. Canal 21en alta emateko datu batzuk sartuta, laster etorriko zaizue etxera pack bat, opari eta guzti. Jazztelen, berriz, alta automatikoa da, eta ez dute inongo datu pertsonalik eskatzen. Biak Infovia plus erabiltzen duen edozein zerbitzari baino askoz azkarragoak direla frogatu dugu.

**Canal 21**

[www.canal21.com](http://www.canal21.com)

**Jazzfree**

[www.jazzfree.com](http://www.jazzfree.com)

**ZURE DENDA BIRTUALA**



Liburuak, diskoak, bideoak...

120.000 artikulua baino gehiago etxetik mugitu gabe.

**WWW.JALGI.COM/MEGADENDA**